

# Bloga daukat, hain zaharra al naiz?

Konturatzerako zahartu egiten zara: 2004 inguruan bloga sortu zenuen, munduan zegoen gauzarik modernoena zelakoan: deitu zioten bitartekorik gabeko kazetaritza; hitz egin zen benetako informazio askatasunaz; eta zu, gorantz begira, utopia hori gertuago zegoelako ustean. Baina pasa dira bost urte, *Wired* aldizkarian Paul Boutinek idatzitako artikulu bat irakurri eta, kamarada, gauzak nola aldatzen diren ikusi duzu.

GORKA BEREZIARTUA

“ZEURE BLOGA IDAZTEN hasi behar al duzu? –dio artikuluaren hasierak– Hona lagun baten aholkua: ez egin. Eta honezkero bloga baldin badaukazu, kendu entxufe!”.

Orain Twitter, Facebook eta antzekoen garaia bizi dugu, sare sozialen arao, Interneteko azken zurrumbilo eroa; eta, Boutinek dioenez, blogek berrikuntzaren treneko txartela galdu dute. Zergatik?

## Lehen geltokia: dirua

“Blogsfera, behinola norbere adierazpenen eta pentsamendu argien oasi fresko izandakoa, ordaindutako gauzen tsunami batek ito du”. Blogetan espezializatutako Technorati bilatzailearen Top 100ean geroz eta gutxiago dira blog pertsonalak; ezin dute lehiatu, egunean 30 artikulu idazten dituzten blogari profesionalen aurrean.

## Bigarren geltokia: multimedia

Blogen arrakasta zor zaio testuak publikatzea erraztu izanari, ordenagailuko pantailan borragoma erabiltzen zuenak ere bere gunea erraz sortzeraino. Baina orain, banda zabalera handiagoekin, multimedia edukiak sareratzea edonoren esku dago; eta argazkiak, bideoak eta audioa hobeto egokitzen dira, Boutinen esanetan, Flickr, YouTube edo Facebook-era. Oroitzen kanta? Bideoak hil zuen blog izarra.

## Hirugarren geltokia: testuak, fite!

2007ko maiatzean Twitter genuen hizpide astekari honetan. Urtebete zeraman martxan

eta askok mikroblog bat zer zen deskubritu genuen: gehienez 140 karaktereko mezuz idatzita itxurazko zerbait egin ote zitekeen galdeztzen genion geure buruari. Bada, bi urte

beranduago, baietz erantzun dezakegu: testu bidezko komunikazioa azkartu du. Ohiko blogetan baino lasterrago dabil informazioa mikroblogetan. Euskal Herrian ere komunitate aktiboa sortu da, Txioka.net bisitatuta ikus daitekeenez. “Eta Twitterreko mezuak momentuan bilatu daitezke, Googlek indexatu ditzan itxaron gabe” gehitu digu Boutinek.

## Azken geltokia ote?

*Wired*eko artikuluak hasi bezala bukatzen da: “Hil ezazu zure bloga” dio; 2004a pasa zela; ea Facebooken elkar ikusiko dugun.

Eta pentsatzen duzu sareko guruei horrelako *boutadeak* botatzea gustatzen zaiela, alajaina. Internet erabiltzen hasi zinenetik entzun duzu: e-posta kalitu behar zuen Messenger-ak; eta e-posta erabiltzen jarraitzen duzu –lehen baino gehiago–. Bloggek prentsa akabatu behar zuten; eta prentsan ari zara lanean.

Bai, beharbada zahartu egin zara. Blogak ez dira Interneteko azken moda. Baina, nahi bezain labur idatz dezakezu blogean ere –ikus, bestela, Slashdot.org bezalako webgune erreferentzialak–; multimedia edukiak erraz txertatu ditzakezu; eta kapitalaren lurriak ez ditu blogari guztiak limurtu. Ez gaitzen erremintekin itsutu; ea zerbait interesgarria sareratzen dugun. ■



“Inork ez du zure blog inozo hori irakurtzen” dio argazkiko kamisetak. Interneten salgai dago, [www.zazzle.com](http://www.zazzle.com) gunean. Baina, egia ote da? Benetan iritsi ote da blogentzako azken geltokia?